



Ondarearen Europako  
Jardunaldiak

# BAT EGIN EUROPAKO KULTUR ONDAREAREN FESTA HANDIAREKIN!

PARTE HARTZEKO GIDA



European Heritage Days  
Journées européennes  
du patrimoine



## KAIXO!

Pentsatu duzu inoiz Ondarearen Europako Jardunaldiak egiteko kultur ekitaldi bat antolatzea? Erakundeek bakarrik parte har zezaketela uste zenuen? Ez da horrela, Ondarearen Europako Jardunaldiak, zerbait esateko duten pertsona guztienak dira, hau da, beren ondarea, historia eta memoria partekatu nahi dituzten guztienak.

Ondarearen ekitaldi handi honetan parte hartzen laguntzeko egin dugu gida hau. Bertan aurki ditzakezu jardunaldi bat antolatzeko kontuan hartu beharreko gako batzuk, hala nola ekitaldi motei buruzko ideiak, zure jarduerak arrakasta izateko informazio garrantzitsua, ekitaldia bidaltzeko laguntza.... Hitz batez, abian jartzeko behar duzun guztia.

**Zer dira Ondarearen Europako Jardunaldiak?** Ondarearen inguruan **urri aldera** izaten diren ekitaldi multzo bat dira jardunaldiak. Edozein antolakundek, entitatek, elkartek edo herritarrek parte har dezake, jarduera bat antolatuz oso formatu desberdinetan (ikuskizunak, antzezlanak, bisita ezohikoak, dastaketak, erakustaldiak, txangoak, bizikleta ibilaldiak...), **ondarea ezagutarazteko**, inguratzen gaituena ezagutzeko, eta, jasotako herentzia hori gozatzeko, garenak izatea eginarazten gaituena.

Ondarearen Europako Jardunaldiak Europako Kontseiluaren eta Europako Batzordearen ekimen bat dira, eta Euskadin, hiru foru aldundiek bultzatzen dituzte, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Baina benetako **protagonistak**, kultur eragile guztiak dira, museoak, kulturako teknikariak, turismoa, udaletako berdintasuna, mota guztietako elkarteak, gobernuz kanpoko elkarteak, artxiboak, liburutegiak eta norbanakoak, jarduera berezi hori edo horiek antolatzen animatzen direnak, alegia.

Guztion arteko proiektua bat da, zeren eta Ondarearen Europako Jardunaldiak egitea posible baita **200 eragileri** baino gehiagori esker, zeintzuek, azken lau urteetan, **Gipuzkoan, 320 ekitaldi** baino gehiago antolatu baitituzte.

**Bat egin  
ondare festarekin!**



European Heritage Days  
Journées européennes  
du patrimoine



# ZERGATIK PARTE HARTU?

- ✓ Urtero Euskadi osoko jendea batzen duen **ondarearen festa ospatzeko**.
- ✓ Zuretzat ezinbestekoa dena partekatzeko eta **tokiko ondarearen aitorpena sustatzeko**.
- ✓ Gizarte harreman berriak errazteko eta **komunitateak sortzeko**.
- ✓ Zure proiektuarentzat/ekipamenduarentzat **bideragarritasun handiagoa** lortzeko, egitarau batean azalduz, zeinaren 10.000 kopia Gipuzkoa osoan banatzen baitira.
- ✓ **Kultur eragileen komunitate aktiboan** sartzea.
- ✓ **Formatu berriekin, ideia berriekin eta esperientzia berriekin** berrikuntzak egiteak zure antolakundea hobetzen du.
- ✓ **Zure proiekturako edo zentrorako entzule berriak** erakartzea.
- ✓ **Asebetetze maila handiko** egitarau bat: jardunaldietan parte hartzen dutenen % 90ak baino gehiagok gehieneko puntuazioarekin balioesten dute parte hartzen eta errepikatu nahi duten jarduera.



Animatu zaitez, **kultura zure jarduerarekin uztartzea sozialki errentagarria da eta!**



# NONDIK HASIKO NAIZ?

Modurik onena da pentsatzea **zer aurkeztuko dudan eta nori kontatuko diodan**, ea diren haurrak, familiak, helduak, lokalak, turistak, kolektibo ahulak eta abar.

Gero, imajinatu zerbait **ezezaguna edo ezkutua azaleratuko** duzula, eta, arreta erakartzeko, hasi zure ekitaldia deskribatzen jakin-mina eragin dezakeen sarrera batekin eta parte hartzaileek ikusi eta espermentatuko dutenaren deskribapen batekin. Erabili hainbat adjektibo, hala nola bakana, paregabea, liluragarria, eta abar, eta eman pista batzuk ezagutu o aurkitu dezaketinari buruz. Erabili izenburu motz bat baina sortzailea. Hobe «Aitorrekin arrantzan», ezen ez «Baxurako arrantza».

Ziurtatu **harremanetarako datu guztiak** daudela: data, ordutegiak, aurreinskripzioa, topalekua, kontaktuak.

Sartu **irudiak**, bisitariak ideia bat izan dezaten egingo dutenari buruz. Familientzako jardunaldi bat bada, sartu haurrak dauden argazkiak. Aldiz, helduentzat bada, aukeratu parte hartzen ari diren helduen argazkiak. Pentsa irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela, eta argazki batek eragin dezakeela norbait zure ekitaldiaren orrian gelditzea eta azkenean ekitaldira joatea.

Batasunak indarra dakar! Askotan, beste elkarte/eragile batekin bat egiteak lagun diezazuke egia bihurtzeko eroegitzat jotzen zenuen ideia hori sortzen.

**Formatua garrantzitsua da.** Jardueraren gaiarekin batera, formatua da publikoa parte hartzera gehien bultzatzen duena. Ez zaitetz lotsatia izan, ondarea modu askotara kontatu daiteke eta.



# HAINBAT IDEIA INSPIRATZAILE ERAKUTSIKO DIZKIZUGU



Gogoratu ezen, beste edizioetako inkestek esaten dutenaren arabera, publikoak gauzak egitea gustuko duela: ukitzea, parte hartzea, usaintzea, imajinatzea, kontatzen dioten hori esperimentatzea.



Gonbidatu **musikari** bat, bere instrumentua jo eta bere historia konta dezan, lehen instrumentuak, bilakaera, ospetsuenak...



**Landare** bilaketa: antolatu sendabelarrak bilatzeko irteera bat eta azaldu haien propietateak. Amaitu sendabide naturalen tailer batekin.



Ibilaldi **ornitologikoa**. Antolatu irteera bat txorien txioak entzuteko, identifikatzeko eta marrazteko.



Antolatu bazkari bat elkartean, ahaztutako **sukaldaritzako errezetak** berreskuratzeke.



Zertan jolasten ziren gure aitona-amonak eskolan? Antolatu belaunaldiz gaindiko ekitaldi bat, **antzinako jolasak** irakasteko. Boluntario asko aurkituko dituzu!



Idatzi, egun batez! Antolatu **idazketa tailer** bat, idazlumarekin eta tintarekin.



Korapilatu zaitetz! Deitu tailer baterako **sareak** taldeka **ehuntzeko**, portuko saregile zaharren laguntzarekin.



**Poesia** emanaldi bat, denen artean errezipitateko, ekitaldiarekin bat egiten duten komunitateak adinako hizkuntzetan.



Bildu **70eko edo 80ko urteetan eskolak** emateko erabilitako teknologia: lurbira-globoak, mapak, filminak, diapositibak..



**Sentitu zaitetz** 20ko urteetan! **Jostundegi** tailerra antolatu jantziak birziklatzeko, 20ko urteetako garai batean inspiratua, adibidez.




Erakutsi garai bateko **tebeoak**, eta proposatu artisten topaketa bat komikiaren inguruan.



Aspaldiko zerbait duzu eta ez du inork eza-gutzen? Aprobetxatu urriko hilabetea hura erakusteko. Antolatu bisita bat zure **elkartera**, **antolakundera**, **tailerrera**, **dendara**, **zinemara**, **antzokira**, **bulegora**, **biltegira**, eta konta ieza-guzu zein diren zure sekretuak.



# NOLA BIDALI NIRE JARDUNALDI PROPOSAMENA?



Gipuzkoa Kulturako web orriaren bitartez, bete jardueraren fitxa Informazioa bidali ostean, berrespeneko mezu elektronikoa jasoko duzu eman duzun helbide elektronikoa.

Zure ekitaldiak berezitasunen bat badu, antolatzaillearen ohar atala erabil dezakezu guri kontatzeko. Gogoratu garrantzitsua dela informazio hau argi egotea:

1. Ekitaldia burutuko den **udalerria**.
2. **Jardueraren izenburua:** gogoratu ezen, zenbat eta erakargarriago izan, orduan eta parte hartzaile gehiago erakarriko dituela.
3. **Zer motatako jarduera** den.
4. **Deskripzioa:** esan bisitariari zer ikusiko duten eta zer egingo duten.

5. Hizkuntza.

6. Topalekua.

7. Eguna(k) eta ordua(k): Bi datu horiek, planifikatzen laguntzen dute

8. Informazioa eta erresebak:

Ez bazaude ziur zure ekitaldia bidali duzula, edo arazoren bat duzu, bidali mezu elektroniko bat [gipuzkoa.oej@gipuzkoa.eus](mailto:gipuzkoa.oej@gipuzkoa.eus) helbidera.




## PROPOSAMENA BALIDATZEA

Zure proposamena bidali ostean, antolatzaileek balidatuko dute. Horretarako, jardunaldiek Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Iñaki Arrietaren babesa izango dute.



## IRUDIZTATU ZURE JARDUERA!

Proposamena bidali ostean, material grafikoa bidali behar da. Argazkia aukeratzeko eta bidaltzeko unea da, liburuxkan agertuko dena zure ekitaldiarekin eta antolatzaileen logoekin.



# EGUTEGIA



Edizio berri bat  
prestatzea

01/20  
03/10

03/24  
06/15

Proposamenak bidaltzea

Proposamenak  
balidatzea

06/15  
06/30

06/1  
07/31

Egitaraua prestatzea

OEJ, ondare festa

09/1  
10/31

11/1  
12/31

Ebaluazioa





# OHIKO GALDERAK

## 1. Oso ideia ona daukat ondare festarako, antolatzaileek programatuko lukete?

Ez, antolatzaileek proposamenaren inguruko aholkuak eman ditzakete, baina ez dute programatzaile gisa jarduten.

Parte hartu nahi duen interesdun bakoitzak bere proposamena itxita bidaltzen du, data, toki eta ordu batekin.

## 2. Ondarearekin oso lotura handia duen ekitaldi bat antolatzen dugu urtero, bidali dezaket jardunaldietako parte izan dadin?

Bai, edukiak zuzeneko lotura badu ondarearen transmisioarekin, Europako Ondare Jardunaldietako jardueren barruan sartu daiteke. Zure proposamena bidaltzen duzunean, adierazi nolako lotura duen jarduerak ondarearekin.

## 3. Urrian beti egiten dugu kultur jardueraren bat, baina ez dakit ondarearekin loturarik duen, egitarauaren parte izan al daiteke?

Agian bai, ondarea uste duguna baino askoz gertuago dago, ondarea ez da monumentu bat bakarrik. Ondarea nonahi egon daiteke, gure arbasoen oroimenean, gure parkeak apaintzen dituzten iturrietan, eraikinetan, belaunaldiz belaunaldi igaro diren errezeta eta jakintzetan.

## 4. Gipuzkoako Foru Aldundiak nire jarduera finantzatzen du?

Ez. Gipuzkoako Foru Aldundiak programa sustatzen, koordinatzen, zabaltzen eta argitaratzen du, Arabako eta Bizkaiko aldundiekin elkarlanean, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

## 5. Antolatzen dudan jarduerak urrian izan behar du?

Ez da nahitaezkoa, baina bai gomendagarria. Jarduerak hilabete batean biltzen baditugu, seguru egitaraua ikusgarriagoa izango dela.

## 6. Udazkenean izango den jarduera bati buruz erabakitzea zaila da, noiz eman behar dut ekitaldiaren behin betiko data?

Gipuzkoa Kulturaren formularioaren bidez bidal daiteke jardueraren lehen proposamen bat, behin-behineko datarekin. Datak itxita egon behar du, liburuxka ekainaren erdialdean prestatzeko.



# LAGUNTZARIK BEHAR?

Gipuzkoako jardunaldiek **Euskal Herriko Unibertsitatearen** babesa dute, antolatzailleak aholkatzeko. Gainera, ondareari buruzko jardunaldien bulego teknikoak, **K6 kultur kudeaketaren** esku dagoenak, zure zalantzak argitzen ditu, proposamenak koordinatzen ditu, eta egitaraua prestatzen du jardunaldietako jarduera guztiekin: [gipuzkoa.oej@gipuzkoa.eus](mailto:gipuzkoa.oej@gipuzkoa.eus).